

ENPRESAK SORTU ETA GARATZEKO PROZESUA SUSTATZEKO PROGRAMA

II. Eranskina: TXEKIN – BIDERAGARRITASUN-PLANA

2023KO DEIALDIA

ENTITATE HOMOLOGATUAK: KUDEAKETA GIDA (ESKAERA ETA ZURIKETA)

Informazio hau arretaz irakurri eta adierazitako jarraibideak bete TXEKIN–Bideragarritasun – plana proiektuen kudeaketa zuzena egiteko.

Zalantzarik izanez gero edo argibideren bat behar izanez gero, jar zaitez harremanetan gure zerbitzuarekin, helbide honetan:

sustapena.ekintzaitetasuna@gipuzkoa.eus

2023. URTEKO DEIALDIA

<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

- Urteko deialdian eskaera ondoko aplikatiboan egingo da:

<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

- **EKINTZAILEEK (entitate homologatuaren laguntzarekin)**, ondokoa egin beharko dute:

- **Eskabidea** bete eta dokumentuak erantsi.
- Proiektua zuriaketa egitea eta eskatutako dokumentuak eranstea.

Ezinbestekoa da ekintzaileek laguntza eskatzea eta proiektuak <http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa> – ren bidez zuriaketa egitea, 2023ko laguntzen deialdian aurreikusitako epeetara egokituta.

LAGUNTZEN IZAERA

Laguntzak GAUZAZKO LAGUNTZAT hartuko dira, eta enpresa sortzeko prozesuan laguntza jasotzeko eskubidea emango diote onuradunari.

Gauzazko laguntzak direnez:

- Laguntzaren pertsona edo entitate onuradunek ez dute kobratzeko eskubiderik, eta ez dute diru-kopururik jasoko.
- Entitate homologatuek, zerbitzuak ematen amaitu ondoren, emandako zerbitzuaren faktura aurkeztuko diote zuzenean Gipuzkoako Foru Aldundiari. Faktura hori kalkulatzeko, jarduketa-memorian kuantifikatutako jarduerak eta araudi erregulatuazailan aurreikusitako moduluak hartuko dira oinarri.

Diruz lagundutako programa honen bidez finantzatutako ekimenak, bat datoz Europako Gizarter Funtsaren (EGF) Euskal Autonomia Erkidegorako 2014–2020 programa operatiboarekin. Ondorioz, ekintzaileak eskuratzen dituen eskubideak, betebeharrak eta erantzunkizunak laguntzaren onarpenarekin, besteak beste, ondokoak dira: aparteko kontabilitatea eramatea, informazioa gordetzea, dokumentazioa eskuragarri egotea, DOCEko onuradunen zerrendetan sartzeta, eta Europako kofinantzaketaren (EGF) hedapena.



BIDEGARRITASUN PLANA

EGUTEGIA: BETE BEHARREKO EPEAK

BIDERAGARRITASUN PLANA

	ESKAERA	JARDUERAK GAUZATZEKO EPEA	JUSTIFIKAZIOA
2023/01/01 - 2023/06/30 bitartean hasitako proiektuak	2023/07/14 12:00	Oro har, 2023ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2024ko martxoaren 31n amaituko da.	2023/09/29
2023/07/01 - 2023/11/30 bitartean hasitako proiektuak	2023/12/09 12:00		2024/04/05

EDUKIA

1. TXEKIN PROIEKTUEN KUDEAKETA: EGIN BEHARREKO ZEREGINAK.

1.1 EKINTZAILEAK: EGIN BEHARREKO LANAK.

1.1.1 PROIEKTUEN ESKAERA ETA ZURIKETA.

1.2 ENTITATE HOMOLOGATUEK: EGIN BEHARREKO LANAK.

1.2.1 EKINTZAILEARI LAGUNTZEA.

1.2.2 ZERBITZUA EMATEA. (BIDERAGARRITASUN PLANA).

1.2.3 ZURIKETA ETA ORDAINKETA.

1.2.3.1 KOSTUAK.

1.2.3.2 FAKTURAK.

2. INFORMAZIOA ETA DOKUMENTUAK.

Oharra: TXEKIN proiektuen kudeaketak inplikatzeko duenaren ikuspegi orokorra izateko, eskuliburu honetan aurkezten dira EKINTZAILEAK eta ENTITATE HOMOLOGATUAK egin beharreko zereginak.

Programak behar bezala funtziona dezan, garrantzitsua da bai ekintzaileek bai prozesu osoan haiekin batera dauden entitate homologatuek prozedura osoa barneratzea (egin beharreko zereginak eta epea).

1. TXEKIN PROIEKTUEN KUDEAKETA.

1.1. EKINTZAILEAK: EGIN BEHARREKO LANAK

1.1.1. PROIEKTUEN ESKAERA ETA ZURIKETA.

- TXEKIN programaren onuradunak (eta, beraz, **laguntza eskatzeko eta zuritzeko arduradunak**) **PERTSONA FISIKOAK dira.**
- Laguntzaren eskaera eta zuriketa izapidetzeko, ekintzaileek **erabiltzaile ESKULIBURU espezifiko bat dute (ESKATZAILEAK: KUDEAKETA GIDA)**, eta gida gisa erabiliko dute eskaera egiteko eta laguntza zuritzeko.
- **Eskabidea betetzeko eta laguntza zuritzeko**, ekintzaileak hautatutako **entitate homologatuaren laguntza izango du.**

1.2. ENTITATE HOMOLOGATUAK: EGIN BEHARREKO LANAK

1.2.1. EKINTZAILEARI LAGUNTZEA

Entitate homologatuek laguntza emango diete ekintzaileei (TXEKIN programaren onuradunei, eta, beraz, laguntza eskaera egiteko eta zuritzeko arduradunei), **eskabidea betetzen eta laguntza zuritzeko.**

Ekintzaileei lagundu ahal izateko, entitate homologatuek **"EKINTZAILEEN ESKULIBURUA: KUDEAKETAGIDA"** kontsultatu beharko dute.

1.2.2. ZERBITZUA EMATEA (BIDERAGARRITASUN PLANA)

- IRAUPENA:

Enpresa sortzeko aholkularitza zerbitzuaren emateak –Bideragarritasun plana– zerbitzu bakoitzeko **gehienez 25 orduko** dedikazioa aurreikusten du.

- BIDERAGARRITASUNAPLANA METODOLOGIA:

BIDERAGARRITASUN PLANA Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak **BIDERAGARRITASUNA PLAN aplikazioaren bidez aurreikusitako EREDUAREN arabera garatu beharko da.**

BIDERAGARRITASUNAPLANA tresna erabiltzeko, entitate homologatuek aplikazioan sartzeko gakoak eskatu beharko dituzte, eta, horretarako, entitateek aplikazioan sartu eta erregistratu beharko dute.

(ikus BIDERAGARRITASUNAPLANA erabiltzailearen eskuliburua)

- **BIDERAGARRITASUN PLANAREN AMAIERA: KOMUNIKAZIOA**

Bideragarritasunaplana aplikazioaren bidez aholkularitza zerbitzuak ematen amaitu ondoren, **entitate homologatuak Departamentuari jakinarazi beharko dio egindako bideragarritasun plana amaitu dela**, <http://bideragarritasunaplana.net> aplikazioaren bidez, **egindako bideragarritasun plana amaitutzat** emateko. Orduan sartuko dira proiektua finantzatzen eta tutorizatzen duten entitate eta programen logoak.

Horretarako e-maila bidaliko dute sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus helbidera honako hau zehaztuz:

- Entitatearen izena.
- Proiektuaren izena.
- **Proiektu mota:** TXEKIN-BIDERAGARRITASUN – PLANA
- **Urtea:** 2023.
- **GAIA:** Bideragarritasun – plana amaitzea webgunean:
www.bideragarritasunaplana.net

1.2.3. ZURIKETA ETA ORDAINKETA.

1.2.3.1. KOSTUAK.

- Enpresak sortzeko kontsulta eta aholkularitza zerbitzuen modulu sistemak (Bidegarritasun plana), ondoko unitateko kostu estandarrak izango ditu:
 - Besteen konturako langileak, Gizarte Segurantzako kotizazioan hobaririk gabekoak:
33,70 €/orduko.
 - Besteen konturako langileak, Gizarte Segurantzako kotizazioan hobaridunak:
25,74 €/ orduko.
 - Langile autonomoak:
30,29 €/ orduko.

1.2.3.2. FAKTURAK.

Ikasekin aplikazioan emandako zerbitzuaren justifikazioa egin ondoren, zerbitzua eman duen entitate homologatuak mezu elektronikoko bat bidaliko du sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus helbidera, proiektuaren justifikazioa adieraziz:

- **GAIA:** Justificación proyecto
- **Programa:** TXEKIN –BIDERAGARRITASUN – PLANA
- **Ekintzailearen izena eta abizenak.**

Ekonomia Sustatzeko Zerbitzuak proiektua justifikatzeko dokumentazioa egiaztatu ondoren, zerbitzuak emandako zerbitzua fakturatzeko jarraitu beharreko prozesua adieraziko dizu.

FAKTURA Foru Aldundiaren Fakturen Erregistroaren bidez izapidetuko da (Ogasun eta Finantza Saila).

Fakturaren zenbatekoa kalkulatzeko, jarduketa-memorian kuantifikatutako jarduerak eta araudi erregulatzailan aurreikusitako moduluak hartuko dira oinarritzat.

FAKTURAK IZAPIDETZEKO SARTU BEHARREKO DATUAK

Hartzailea:	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
I.F.Z.:	P2000000F
Helbidea:	Paseo de Errotaburu, 2, Donostia-San Sebastián Gipuzkoa, 20018
E-posta:	fakturak-kontabilitatea@gipuzkoa.net
Kontaktu gehigarria:	Joseba Amondarain
Organo kudeatzailea:	LA0002200
Unitate izapidetzailea:	LA0002226
Kontabilitate bulegoa:	LA0002344

Kontzeptua:	Fakturak azaldu beharko dute: <ul style="list-style-type: none">- Programa- Ekintzaile eta proiektuaren izena- Kontzeptua <p>“EGFk zure etorkizunean inbertitzen du” Europako Gizarte Funtzak %50ean finantzatutako TXEKIN programaren barruan Enpresa bideragarritasuneko proiektuak burutzen egindako zerbitzuengatik.</p>
--------------------	--

2. INFORMAZIOA ETA DOKUMENTUAK

Entitate homologatuek eta ekintzaileek TXEKIN (2023ko deialdia) proiektuak eskatzeko eta kudeatzeko informazio eta dokumentazio guztia aurkitu ahal izango dute web-orri honetan:

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/ekintzailetasuna/txeKin>

Zalantzarik baduzu edo argibideren bat behar baduzu, jar zaitez harremanetan gure zerbitzuarekin helbide elektroniko honen bidez: sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus